

# astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

9.zk 2015 • 5e



PLATERO Y TU  
CORREOS



# BARRUKO IBILBIDEAK

**ARGAZKIAK: TXELU ANGOITIA**

Bost gonbidatuek barruko bidezidorretatik eramango gaituzte, sakoneko bidexka apaletatik. Paisaia ikusgarriak alde batera utzita, leku xumeetara eta intimoetara begiratzeko gonbitea egiten digute, eurentzat oso bereziak diren bazterretara gerturatzeko keinua.

Sarritan bakoitzaren haurtzarora egiten dute bidaia. Rilke poeta handiak esan zuenez, horixe omen da "gure aberri bakarra".

Munduko lekurik kutunena denez, euren burua horra loturik dago. Leku hori gure jatorria izango da urliarentzat; helmuga sandiarentzat; eta ametsen lurralde hauskorra berendiarentzat.

Ale honetara ekarri ditugun gonbidatuentzat toki horiek Durangaldean daude, eta kasu honetan, Gerediagako langileak dira.







## MOMOITIO

2009ko uztaila izan zen eta San Juan Momoitioko nekropoliaren erakusketaren aurkezpena egin zen. Ni Gerediagara heldu berria nintzen eta hura, nire lehen agerraldi publikoa. Aurreko asteak Gerediagan "ikasten" eman nituen, txosten eta zenbakien artean, beraz, egun eguzkitsu hartan plazara irtetzea gogotsu hartu nuen.

Bertara heldu eta Joni galdetu nion: "eta hemen, Gerediagak zer egin du?" Bere azalpenaren traolak datozkit burura: #sustatu #ondarea #elkarlana #lagunak #zaindu #historia tartean, jendea hurbiltzen zitzaigun agurtzen eta ongi etorria ematen irribarrez. Poztasunez betetako leku magiko batean bilakatu zen nekropolia niretzat.

## AITZIBER ATORRASAGASTI | DURANGO



A close-up photograph of a stone wall. On the left, there is a decorative window with a rectangular frame. Inside the frame, a large, smooth, light-colored stone egg is positioned. Above the egg, within the same frame, are two circular openings. The rest of the wall is composed of irregular, weathered stones in various shades of brown, tan, and grey, with some mortar visible between the stones.

## AMATZA

1972ko abuztuaren 26an, Amatzako baselizara joan nintzen RSBAPkoak antolatutako ekitaldira. Ekitaldian 900 urte lehenago Nafarroako erregeak baseliza hura San Millan de la Cogollako monasterioari dohatua izan zela gogoratu zuten. Hamar urte beranduago, 1982ko abuztuan, berriz ere han nengoen. Oraingoan Iñaki García Caminoren zuzendaritzapean Durangerriko erdi aroa ikertzeko hasitako indusketa arkeologikoetan laguntzen. Gero etorriko ziren Ama Birjinaren laburketa, udako auzolandegien bidezko konponketak eta abar. Pentsatzen dut Amatzan inguruan jasotako hazi oiek erretzerakoan sortu zutela nire bizitzan hain oinarrizko den Durangerriarekiko lotura. Amatzan aurkitu nuen Gerediagako haritza eta berarekin batera Euskal Basora.

**JON IRAZABAL** | DURANGO









## **URKIOLAMENDI**

Eskatu zidatenean Durangaldeko leku berezi bat aukeratzeko, inolako duda barik nire burua Urkiolara joan zan. Ingurua nire bizitzako parte oso garrantzitsua izanez, bertan oso momento bereziak bizi izan dodaz. Urkiolamendiko bidean badago puntu konkretu bat eta bertara hurbiltzen naz lasaitasuna eta sosegua behar dudanean.

**ESTER GARCIA URIEN "EPI" | DURANGO**



## **LANDA EDERRA**

Ti-ta batean Landa Ederrara  
Barrutik ihes eginez ...  
Eguzkia, liburu bat eta Mugarra  
Barrura sartuz ...  
Gerizpea, koaderno bat eta ni neu  
Ti-ta batean Bizitzara

**ESTHER SOTO | DURANGO**

